



<b>Ekipoa</b>	<b>Energia berriztagarrien edo hondar-beroaren bidez klimatizatzeko ekipoa</b>
<b>Kodea</b>	D-4027
<b>Ingurumen-hobekuntza</b>	Teknologia hori aplikatuz gero energia gutxiago kontsumitzen da, eta energia berriztagarriak eta hondar-beroak aprobetxatzen dira. Horrenbestez, lagungarria da berotegi efektua eragiten duten emisioak (berotze globalaren erantzule potentzialak) murrizteko.
<b>Honetan datza:</b>	<p>Eguzki-energia (doako beroa) biltzeko instalazio bati lotutako ekipoez hotza sortzen dute: zenbat eta eguzki gehiago, hainbat eta hotz gehiago sortzeko aukera. Bai energia berriztagarriekin (eguzki-energia, energia geotermikoa eta abar), bai hondar-beroekin funtzionatzen dute, bai eta galdara konbentzional batek emandako beroarekin ere. Azken kasu horretan, ordea, errentagarritasun txikiagoa dute. Beroa sortzeko ere erabili daitezke, 1,6 inguruko COParekin.</p> <p>Beroaren bidez hotza sortzeko, hiru makina mota hauek erabili daitezke:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Xurgatze bidez hozteko makina. Ekipo hedatuak dira.</li> <li>- Adsortziozko hozteko makina. Aurrekoak baino gutxiago hedatu dira, baina gero eta interes gehiago sortzen dute, sendoak eta sinpleak baitira.</li> <li>- Lehortze eta lurruntze bidezko hozteko sistemak (DEC). Ziklo irekiko sistema horiek material higroskopiko bat erabiltzen dute hozgarri gisa, eta lurruntzearen bidez hozteko etapa bat txertatzen dute.</li> </ul> <p>Xurgatze- eta adsortzio-ekipoek, sistema konbentzionaletako Rankine zikloko konpresorearen ordez, lurrun-sorgailu/xurgagailu bat eta zirkulazio-ponpa bat daukate. Lehortze bidezko hozteko sistemek, berriz, material lehorgarria eta bero-trukagailuak erabiltzen dituzte.</p>
<b>Zein sektoretan aplikatu daitezkeen</b>	250 kW termiko baino gutxiagoko instalazioak, eraikin mota guztietako klimatizazio-sisteman aplikatu daitezke.